ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2026ko azaroaren 18a, asteazkena • 133 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

OGASUN ZUZENDARITZA

Dirubilketa Zerbitzua

Ediktu – Probidentzia eta ondasun higiezinak enkantean ateratzeko iragarkia

Javier López de Calle Ochoa de Eribe, Arabako Foru Aldundiaren Dirubilketa Zerbitzuaren buruak.

Jakinarazten dut: Arabako Foru Ogasunarekiko zorrak kobratu ahal izateko Arabako Foru Aldundiaren Dirubilketa Exekutiboan izapidetzen ari diren premiamendu espediente betearazleetan, Ogasuneko zuzendariak ondasun higiezinak enkantean jartzeko erabakia eta probidentzia eman zituen eta zordunari enbargatutako ondasun higiezina enkante publikoan besterentzeko baimena eman zuen. Ondorio horretarako, enkantea egiteko data zehaztu zen, eta 2027ko urtarrilaren 19an izango da, 10:00etan, Arabako Foru Aldundiko Dirubilketa Exekutiboko lokaletan (Probintzia plaza 13, behealdea, Vitoria-Gasteiz). Enkantea izapidetzean eta gauzatzean, Arabako Lurralde Historikoko Dirubilketaren Araudi Orokorra onesten duen Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 10eko 48/1994 Foru Dekretuaren 176., 177. eta 178. artikuluetako xedapenak bete behar dira.

Hori guztia betez, honako iragarki hau argitaratu da, eta enkantean lizitatzaile gisa parte hartu nahi dutenei ondokoa jakinarazten zaie:

1. Besterendu beharreko ondasun higiezinak honako hauek dira:

Bat zenbakiko sorta. 2012EXP48002024 espedientea.

Hiri lurzatia, Gasteizen. Zabalganako "Mariturri" 6. sektoreko S6-RD24 lurzatia, BOE araubideko bizitegi erabileraduna. Mila hirurehun eta laurogeita lau metro koadroko (1.384 metro koadro) azalera du. Mugakideak: iparraldean, hegoaldean eta mendebaldean, ZV-35 lurzatia, berdegunea izateko erabileraduna; mendebaldean, VL-8 lurzatia, tokiko bideetarako erabileraduna Lurzati horri sei mila eta hirurehun metro koadroko eraikigarritasun erreal osoa (6.300 metro koadro eraiki) dagokio sestratik gora, eta haietatik bederatziehun metro koadro eraiki (900 metro koadro eraiki) hirugarren sektoreko erabilerarako dira, eta bost mila eta laurehun metro koadro eraiki (5.400 metro koadro eraiki) BOE araubideko bizitegi erabilerarako; sestratik beherako eraikigarritasun erreala, berriz, hiru mila laurehun eta laurogeita metro koadrokoa da (3.480 metro koadro eraiki). Lurzatia zati independenteetan banatzeko, jabetza kuotaren gutxienez ehuneko 50 ordezkatzen duten jabeek proposatutako nahitaezko barne birpartzelazioa egingo da. Katastro erreferentzia: 59-11-1183-00-0001-0001DV.

Finkaren gainean zordunak dituen eskubide enbargatuak: jabari osoaren ehuneko 2,88, hirigintza birpartzelazio batean egindako adjudikazioaren ondorioz eskuratua. Eskubide hori Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren idazkariak, alkate-lehendakariaren oniritziarekin, 2020ko urtarrilaren 17an emandako ziurtagirian eta Vitoria-Gasteizko HAPOko Salburua eta Zabalgana eremuetako ekipamendu eta etxebizitza planaren hirigintzako jarduketa programako birpartzelazio proiektuan oinarritzen da. Horren ondorioz, 2020ko uztailaren 7an egin zen lehen inskripzioa.

Inskripzioa: Vitoria-Gasteizko 3 zenbakiko Jabetza Erregistroa, 4700 liburukia, 915 liburua, 197 folioa; Vitoria-Gasteizko udalerriko 48176 zenbakiko erregistro finka. EKB: 01007000866680.

Arabako Foru Aldundiaren aldeko enbargo idatzoharra egin aurretik, honako karga hau ageri da erregistratuta zordunak finka honen gainean duen jabetza eskubideari buruz: enbargoaren prebentziozko idatzoharra, C letra, Arlo zibileko lan arloko eta administrazioarekiko auzien arloko Gasteizko Betearazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesalak izapidetutako 2251640/2012 zenbakiko titulu judizialen betearazpen prozeduraren ondorioz. Prozedura horren jatorria Vitoria-Gasteizko Lehen Auzialdiko 5. Epaitegian dago. 2024ko azaroaren 14ko F idatzoharraren bidez luzatuta dago. Vitoria-Gasteizko SCPEJk 2025eko ekainaren 2an egindako idatziaren arabera, karga hori indarrean dago oraindik osorik, eta ordaintzeko dagoen zenbatekoa 83.508,86 eurokoa da, 2026ko uztailaren 31ra arte eguneratutako berandutze interesak barne. Kasu honetan, enkantean jarriko diren bi erregistro finkek (lehenengo eta laugarren sortak) hartzekodun beraren aldeko enbargo bera dutenez, eta, beraz, enbargoaren zenbatekoaren kenkaria bi finken balorazioaren proportzioan egingo da.

Enkantearen gutxieneko prezio gisa balioko duen balorazioa: 55.856,00 euro.

Aurreko kargak, kentzekoa: -9.806,87 euro.

Enkante tasa: 46.049,13 euro, baina oraindik bere horretan jarraituko du C letran idatzita dagoen eta lehentasuna duen karga, Foru Aldundiaren eskubidearen aurrekoa, eta indarrean iraungo du, iraungitzean errematearen prezioa aplikatu gabe.

Sorta honetan lizitatzeko tarteak: 500,00 euro.

Bi zenbakiko sorta. 2013EXP48001079 espedientea.

Hiri lurzatia, Gasteizen. Zabalganako "Mariturri" 6. sektoreko S6-RD24 lurzatia, BOE araubideko bizitegi erabileraduna. Mila hirurehun eta laurogeita lau metro koadroko (1.384 metro koadro) azalera du. Mugakideak: iparraldean, hegoaldean eta mendebaldean, ZV-35 lurzatia, berdegunea izateko erabileraduna; mendebaldean, VL-8 lurzatia, tokiko bideetarako erabileraduna Lurzati horri sei mila eta hirurehun metro koadroko eraikigarritasun erreal osoa (6.300 metro koadro eraiki) dagokio sestratik gora, eta haietatik bederatziehun metro koadro eraiki (900 metro koadro eraiki) hirugarren sektoreko erabilerarako dira, eta bost mila eta laurehun metro koadro eraiki (5.400 metro koadro eraiki) BOE araubideko bizitegi erabilerarako; sestratik beherako eraikigarritasun erreala, berriz, hiru mila laurehun eta laurogeita metro koadrokoa da (3.480 metro koadro eraiki). Lurzatia zati independenteetan banatzeko, jabetza kuotaren gutxienez ehuneko 50 ordezkatzen duten jabeek proposatu duten nahitaezko barne birpartzelazioa egingo da. Katastro erreferentzia: 59-11-1183-00-0001-0001DV.

Finkaren gainean zordunak dituen eskubide enbargatuak: jabari osoaren ehuneko 2,35, hirigintza birpartzelazio batean egindako adjudikazioaren ondorioz eskuratua. Eskubide hori Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren idazkariak, alkate-lehendakariaren oniritziarekin, 2020ko urtarrilaren 17an emandako ziurtagirian eta Vitoria-Gasteizko HAPOko Salburua eta Zabalgana eremuetako ekipamendu eta etxebizitza planaren hirigintzako jarduketa programako birpartzelazio proiektuan oinarritzen da. Horren ondorioz, 2020ko uztailaren 7an egin zen lehen inskripzioa.

Inskripzioa: Vitoria-Gasteizko 3 zenbakiko Jabetza Erregistroa, 4700 liburukia, 915 liburua, 197 folioa; Vitoria-Gasteizko udalerriko 48176 zenbakiko erregistro finka. EKB: 01007000866680.

Zordunak finka honen gainean duen jabetza eskubideari dagokionez, ez dago Arabako Foru Aldundiaren aldeko enbargo oharra baino lehenagoko kargarik erregistratuta.

Enkantearen gutxieneko prezio gisa balioko duen balorazioa: 43.843,00 euro.

Sorta honetan lizitatzeko tarteak: 500,00 euro.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Hiru zenbakiko sorta. 2013EXP48001079 espedientea.

Hiri lurzatia, Gasteizen. Zabalganako "Elejalde" 4. sektoreko S4-M-8 lurzatia, BOE araubideko bizitegi erabilera duena. Bi mila zortziehun eta zazpi metro koadroko (2.807 metro koadro) azalera du. Mugakideak: Iparraldean, VL-1 lurzatia, tokiko bideetarako zuzendua –Itsaso Baltikoaren kalea–; hegoaldean, VL-2 lurzatia, tokiko bideetarako zuzendua –Ozeano Barearen kalea–; ekialdean, ZV-4 lurzatia, berdegunerako zuzendua; mendebaldean, ZV-7 lurzatia, berdegunerako zuzendua. Lurzati horri zortzi mila bostehun eta laurogei metro koadroko eraikigarritasun erreal osoa (8.580 metro koadro eraiki) dagokio sestratik gora, eta haietatik bederatziehun metro koadro eraiki (900 metro koadro eraiki) hirugarren sektoreko erabilerarako dira, eta zazpi mila seiehun eta laurogei metro koadro eraiki (7.680 metro koadro eraiki) BOE araubideko bizitegi erabilerarako; sestratik beherako eraikigarritasun erreala, berriz, lau mila laurehun eta laurogeita hamaika metro koadrokoa da (4.491 metro koadro eraiki). Lurzatia elementu independenteetan banatzeko, jabetza kuotaren gutxienez ehuneko 50 ordezkatzen duten jabeek proposatu duten nahitaezko barne birpartzelazio bat egingo da. Katastro erreferentzia: 5937078800000010001MS.

Finkaren gainean zordunak dituen eskubide enbargatuak: jabari osoaren ehuneko 5,96, hirigintza birpartzelazio batean egindako adjudikazioaren ondorioz eskuratua. Eskubide hori Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren idazkariak, alkate-lehendakariaren oniritziarekin, 2020ko urtarrilaren 17an emandako ziurtagirian eta Vitoria-Gasteizko HAPOko Salburua eta Zabalgana eremuetako ekipamendu eta etxebizitza planaren hirigintzako jarduketa programako birpartzelazio proiektuan oinarritzen da. Horren ondorioz, 2020ko uztailaren 7an egin zen lehen inskripzioa.

Inskripzioa: Vitoria-Gasteizko 3 zenbakiko Jabetza Erregistroa, 4700 liburukia, 915 liburua, 51 folioa; Vitoria-Gasteizko udalerriko 48120 zenbakiko erregistro finka. EKB: 01007000866598.

Zordunak finka honen gainean duen jabetza eskubideari dagokionez, ez dago Arabako Foru Aldundiaren aldeko enbargo oharra baino lehenagoko kargarik erregistratuta.

Enkantearen gutxieneko prezio gisa balioko duen balorazioa: 319.236,00 euro.

Sorta honetan lizitatzeko tarteak: 1.000,00 euro.

Lau zenbakiko sorta. 2012EXP48002024 espedientea.

Hiri lurzatia. Salburuako "Arkaiate" 12. sektoreko S12-RCT-4 lurzatia, prezio tasatuko bizitegi erabilerakoa. Zazpiehun eta hogeita hamasei metro koadro eta hirurogeita zortzi dezimetro koadroko azalera du (736,68 metro koadro). Mugakideak: Iparraldean eta ekialdean, EM-2 lurzatia, ekipamendu generikorako zuzendua; hegoaldean, RCL-12 lurzatia, bizitegi kolektibo libreko erabilerarako zuzendua; mendebaldean, 12. sektorearen muga (Nadine Gordimer kalea). Lurzati horri bi mila zortziehun eta hirurogeita hemeretzi metro koadro eta hamabost dezimetro koadro eraikiko (2.879,15 metro koadro eraiki) eraikigarritasun erreala dagokio sestratik gora, eta haietan irabazteko asmoko eraikigarritasun erreala honela banatzen da: ehun eta berrogeita hamar metro koadro eraiki (150 metro koadro eraiki) hirugarren sektoreko erabilerarako izango dira, eta bi mila zazpiehun eta hogeita bederatzi metro koadro eta hamabost dezimetro koadro (2.729,15 metro koadro eraiki) eraiki araubide tasatuko bizitegi erabilerarako izango dira, eta duen aparkalekuetarako sestratik gorako eraikigarritasuna bederatziehun eta hirurogeita hamahiru metro koadro eta hogeita hamabi dezimetro koadro eraiki da (973,32 metro koadro eraiki). Sestratik beherako benetako eraikigarritasuna zazpiehun eta hogeita hamasei metro eta hirurogeita zortzi dezimetro koadrokoa da (736,68 metro koadro eraiki). Lurzatia elementu independenteetan banatzeko, jabetza kuotaren gutxienez ehuneko 50 ordezkatzen duten jabeek proposatu duten nahitaezko barne birpartzelazio bat egingo da. Katastro erreferentzia: 5953093900001001KY.

Finkaren gainean zordunak dituen eskubide enbargatuak: jabari osoaren ehuneko 21,31, birpartzelazio proiektuko adjudikazioaren ondorioz eskuratua. Eskubide hori Vitoria-Gasteizko Udalak 2020ko urtarrilaren 17an baimendutako administrazio ziurtagirian oinarritzen da. Horren ondorioz, 2020ko ekainaren 16an egin zen finkaren lehen inskripzioa.

Inskripzioa: Vitoria-Gasteizko 5 zenbakiko Jabetza Erregistroa, 4931 liburukia, 1125 liburua, 117 folioa; Vitoria-Gasteizko udalerriko 42426 zenbakiko erregistro finka. EKB: 01009001008489.

Zordunak finka honen gainean duen jabetza eskubideari dagokionez, Arabako Foru Aldundiaren aldeko enbargo idatzoharra egin aurretik, honako karga hauek ageri dira idatzita:

— Enbargoaren prebentziozko idatzoharra, A letra, Vitoria-Gasteizko Udalaren alde, 2012/509 premiamendu espediente administratiboaren ondorioz. 2026ko irailaren 18ko idazki baten bidez eguneratu zen ordaintzeke geratzen den zenbatekoa, eta 40.369,51 eurokoa da.

— Enbargoaren prebentziozko idatzoharra, B letra, Arlo zibileko lan arloko eta administrazioarekiko auzien arloko Gasteizko Betearazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesalak izapidetutako 2251640/2012 zenbakiko titulu judizialen betearazpen prozeduraren ondorioz. Prozedura horren jatorria Vitoria-Gasteizko Lehen Auzialdiko 5. Epaitegian dago. 2024ko azaroaren 8ko D idatzoharraren bidez luzatuta dago. 2025eko ekainaren 2ko idatziaren arabera, karga hori indarrean dago indarrean dago oraindik osorik, eta ordaintzeke dagoen zenbatekoa 83.508,86 eurokoa da, 2026ko uztailaren 31ra arte eguneratutako berandutze interesak barne. Kasu honetan, enkantean jarriko diren bi erregistro finkek (lehenengo eta laugarren sortak) hartzekodun beraren aldeko enbargo bera dutenez, eta, beraz, enbargoaren zenbatekoaren kenkaria bi finken balorazioaren proportzioan egingo da.

Enkantearen gutxieneko prezio gisa balioko duen balorazioa: 419.777,00 euro.

Aurreko kargak, kentzekoa: -114.071,50 euro.

Enkante tasa: 305.705,50 euro, baina oraindik bere horretan jarraituko du A eta B letran idatzita dagoen eta lehentasuna duen karga, Foru Aldundiaren eskubidearen aurrekoa, eta indarrean iraungo du, iraungitzean errematearen prezioa aplikatu gabe.

Sorta honetan lizitatzeko tarteak: 1.000,00 euro.

2. Lizitatzaileek aski iritzi beharko diete espedientean bildutako jabetza tituluei eta jabetza erregistratzaileak emandako jabari eta kargei buruzko ziurtagiriei. Hala, interesa duten guztiek horiek aztertu ahalko dituzte enkantearen aurreko egunera arte, Dirubilketa Exekutiboan, eta ez dute beste agiri batzuk eskatzeko eskubiderik izango.

3. Zordunak enkantean jarriko diren ondasunen gainean enbargatuta duen eskubidea arestian zehaztutakoa da. Era berean, ez da onartuko enkante tasatik beherako posturik edo eskaintzarik, eta ondorengo eskaintzek ezarritako tarteetara egokitu beharko dute.

4. Besterentzekoak diren ondasunei eragiten dieten aurreko kargek, arestian aipatu direnek, iraun egingo dute, eta enkantean lortutako erreматearen prezioa ez da kargak azkentzeko erabiliko.

5. Deskribatutako finkak banan-banan aterako dira enkantera, aipatutako hurrenkeran. Prozedura batean sorta bat baino gehiago badaude, adjudikatutako ondasunen zenbatekoarekin zordunari eskatzen zaizkion zorrak osorik kitatzen diren unean amaituko da enkantea.

6. Enkante publikoan behar bezala identifikaturiko pertsona fisikoak edo juridikoak lizitatzaile gisa parte hartu ahalko dute, baldin eta zuzenbidearen arabera jarduteko gaitasuna badute eta horretarako legezko eragozpenik edo murrizketarik ez badute.

7. Enkantean lizitatzaile gisa parte hartu nahi dutenek nahitaezko berme gordailua eratu beharko dute Mahaiaren aurrean, gutxienez, adierazitako enkante tasaren ehuneko 20koa, eta jakinarazten da gordailu hori irmo sartuko dela Foru Ogasunean, adjudikaziodunek erreматearen prezioa ordaintzen ez badute, hargatik eragotzi gabe adjudikazioaren eraginkortasuna galarazteak gordailu horren zenbatekoan eragiten dituen kalte handiagoei lotutako erantzukizunak.

8. Enkantea ondasunak adjudikatu aurreko edozein unetan etengo da, baldin eta eskuratu nahi diren zorpekoak ordaintzen badira.

9. Lizitatzaileek gutun azal itxian bidali edo aurkeztu ahal izango dituzte eskaintzak, iragarki hau argitaratzen den egunetik enkantea hasi baino ordubete lehenagora arte. Eskaintza horiek gehieneko izaera izango dute, eta Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean

erregistratuko dira, ordua adierazita; horrez gain, lizitatzeko gordailuaren zenbatekoa jasota daukan eta Foru Aldundiaren alde egindako txeke adostuarekin batera aurkeztu beharko da. Agiri horiez gain, lizitatzailearen NANa eta, hala badagokio, haren ordezkaritza egiaztatzen duen eskritura publikoa edo agiria ere aurkeztu beharko dira. Dokumentu horien ordez, kopia konpultsatuak edo erkatuak aurkeztu ahalko dira.

Gutun azal itxia aurkeztu duten lizitatzaileak ordezkatuko ditu Mahaiak, eta eskaintza handiagoak egin ditzake, haien izenean, eskaintzan ezarritako gehieneko muga gainditu gabe; dena den, lizitatzaileek ere parte hartu ahalko dute lizitazioan, gutun azalekoa baino eskaintza baino handiagoa eginda.

Gutun azal itxian aurkeztu den eskaintzarik handiena ez badator bat tarteren baten zenbatekoarekin, aurreko tartearen zenbatekoaren arabera egin dela ulertuko da.

Gutun azal itxian aurkeztutako eskaintza bat baino gehiago bat badatoz eskaintzarik onenarekin, lehenengo erregistratutakoari emango zaio lehentasuna.

Gutun azal itxian eskaintza bat baino gehiago aurkezten bada, bigarren eskaintza altuenetik aurrerako posturak onartuko dira, eta beste eskaintzarik ez badago, bigarrenetik gorako tartean egin den posturarik handiena izango da adjudikazioduna.

10. Errematatzaileek adjudikazio ekitaldian bertan edo hurrengo bost egunen barruan ordaindu beharko dute eratutako gordailuaren eta adjudikazioaren prezioaren arteko aldea.

11. Enkantea lehen lizitazioan adjudikatu gabe geratzen bada, Enkante Mahaiak, egokia den ala ez eztabaidatu ondoren, honako aukera hauetako bat erabaki ahalko du:

a) Ekitaldi berean, adjudikatu gabeko ondasuna eskaintzeko bigarren lizitazioa egitea. Erabakia berehala iragarriko da, eta tasa berria berdintzen duten proposamenak onartuko dira. Tasa hori lehen lizitazioaren enkante tasaren ehuneko 75ekoa izango da. Horretarako, ordu erdiko epea izango da lizitatu nahi dutenek besterentzekoa den ondasunaren enkante tasa berriaren ehuneko 20ko gordailua era dezaten; aurretik egindako gordailuek xede horretarako balioko dute. Bigarren lizitazioa lehenengoaren formalitate berekin egingo da. Adjudikatzen ez diren ondasunak zuzeneko adjudikazioaren izapidera pasatuko dira, Arabako Lurralde Historikoko Dirubilketako Erregelamendu Orokorraren 180. artikuluan araututakoaren arabera.

b) Ondasunak zuzenean adjudikatzeko izapideari ekitea, 180. artikuluak ezarritako prozedurari jarraikiz.

12. Eskualdatzeari loturiko gastu eta zerga guztiak, eskualdatzearen notariotza gastuak eta lehentasunezkoak ez diren kargak ezereztekoak barne, adjudikaziodunaren konturakoak izango dira. Jabeen erkidegoarekin izan daitezkeen zorren egoerari dagokionez, direla etxebizitzarenak, direla lokalarenak, adjudikaziodunak berariaz salbuesten du Arabako Foru Aldundia, Jabetza Horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1996 Legearen babesean (apirilaren 6ko 8/1999 Legeak aldatu zuen lege hori), jabeen erkidegoaren zorren egoerari buruzko ziurtagiria aurkezteko betebeharretik, eta adjudikaziodunaren konturakoak izango dira ordaintzeke dauden gastuak.

13. Arabako Foru Aldundiak besterendu gabeko ondasunaren adjudikazioa eskatzeko eskubidea izango du, Dirubilketako Araudiaren 188. artikuluak eta hurrengoek xedatutakoaren arabera.

Oharra: hartzekodun hipotekarioak, pignoratizioak, kanpotarrak eta ezezagunak, halakorik balego, jakituntzat joko dira ondorio guztietarako iragarki honen bidez, eta edukiarekin ados ez badaude, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahalko dute organo beraren aurrean, edo, bestela, erreklamazio ekonomiko-administratiboa Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen aurrean, hilabeteko epean, iragarkia argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko azaroaren 11

Dirubilketa Zerbitzuaren burua
JAVIER LÓPEZ DE CALLE OCHOA DE ERIBE

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.11.18 06:12:10 Z